

**2015EKO MARTXOAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita seia.

HILABETEA: Martxoa.

URTEA: Bi mila eta hamabosta.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika.

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2015eko martxoaren 18 aktaren berri eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

2.- OBRAK KONTRATATZEA. Plegu teknikoa eta administratiboa onartzea eta obrak kontratatzeke lizitazio deialdia egitea.

Hirigintza batzordearen proposamenaren berri eman da, hau da:

2014ko iraileko data duen eta ASTAZALDI ARK S.L.P.ek idatzitako Oriako Pasealekuan igogailu publikoa instalatzeko proiektua onartzea eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez obrak kontratatzeke baldintza plegua onartzea.

Ezagutzera eman da igogailuaren zimendu lauza Ezkiaga Etorbidea, 1A-1Beko garajeen itxitura horman sartzea dakarrela eta horrek suposatzen duela, Jabetza Erkidegoak Udalaren alde, erret eskubidea ezartzea. Ezkiaga Etorbidea, 1A-1B Jabetza Erkidegoak aho batez onartu ez zuenez erret eskubidea Udalaren alde eratzea, Proiektuan aurreikusi zen erret eskubide horren desjabetzea. Ondasun eta eskubideen zerrenda onartu eta argitaratu ondoren, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion aitortzea ondasun eta eskubide horiek okupatzea premiazkoa zela.

Eusko Jaurlaritzak, aipatutako desjabetzea planeamenduan aurreikusita dagoen ala ez jaramonik egin gabe, 2015-03-16ko EHAAn argitaratu du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren 2015eko martxoaren 10eko 27ko Dekretua aitortuz luza ezinezkotzat jotzen dela, Beasaingo Ezkiaga auzoan arkitektura-oztopoak kentzea eta hiri inguruan iresgarritasuna bermatzea igogailu publiko bat gauzatzearen bidez.

Horren aurrean, Idazkariak ohartarazi du, erret eskubide desjabetze hori gauzatu egin beharko dela obrak esleitu baino lehen. Gutxienez okupatu aurreko aktak sinatu egin beharko dira eta balio-justua ordaindu edota kontsignatu, obrak esleitzeko, izan ere Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 126. artikulua dio proiektua gauzatzeko terrenoen disponibilitatea behar dela eta ezinbestekoa dela obrak esleitzeko.

Obrak, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu nahi dira eta salbuespen izaera duenez, prozedura hori erabiltzea justifikatu egin behar da, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen duen Legearen Testu Bateratuaren 109.4 artikulua dioenaren arabera.

Bildutakoek, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzea justifikatu dute kopuruagatik (100.000 € baino gutxiago) eta prozedura burutzeko epea, prozedura irekia baino laburragoa izan daitekeelako.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 3 (BILDU, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 2 (EAJ, H1)

Etorri gabea: 1 (ARALAR).

Horren ondorioz, erabaki hau hartu da:

Lehenik. 2014ko iraileko data duen eta ASTAZALDI ARK S.L.P.ek idatzitako Oriako Pasealekuan igogailu publikoa instalatzeko proiektua onartzea.

Bigarren. Lizitazio prozedurari hasiera ematea, obrak kontratatzeke publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiliz eta baldintza plegua onartuz, ezaugarri berezienak ondorengoak izanik:

Prezioa: 98.734,39 € (BEZik gabe), 119.468,61 € (BEZ barne)

Egikaritze epea: 12 aste.

Negoziatio-irizpideak:

- Prezioa
- Igogailuaren hornikuntzan eta instalazioan hobekuntzak.
- Obra egikaritze-epean hobekuntzak.
- Obra zibilarekiko proiektuan aurreikusita ez dauden irtenbide teknikoen hobekuntza.

Agiriak:

- Euskara
- Berdintasuna

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko zortziak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.